

Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikasgeletan erabil daiteke ohiko testuliburuaren ordezkotako material digitalik?



Ikasle Kaiera



Begoña Bilbao Bilbao
Karmele Perez Urraza

Aurkibidea

1. PROIEKTUAREN FORMULAZIOA	3
1.1. Galdera sortzailea	3
1.2. Eszenatokia	3
1.3. Gaizerrenda	4
1.4. Aurrezagutzak	4
1.5. Irakats Zama	4
1.6. Taldeen kopurua eta taldeak egiteko irizpideak	5
2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIO SISTEMA	6
2.1. Jarduera motak	6
2.2. Emateko zerrenda	7
2.3. Proiektuaren ebaluazioa	7
2.4. Ikasketa kooperatiboaren osagaiak	8
2.5. Errekurtsuak	8
3. IKASLEAREN ASTEROKO LAN PLANGINTZA	8

1. PROIEKTUAREN FORMULAZIOA

1.1. Galdera sortzailea

Ikasleek ikertu egin behar dute galdera sortzaile honen inguruan: Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikasgeletan erabil daiteke ohiko testuliburuaren ordezko material digitalik?

1.2. Eszenatokia

Auzoko/herriko eskola “Eskola 2.0” proiektuan sartuta dago. Zuzendaritzak aurrera pausu berriak eman nahi ditu eta pedagogoko talde bati eskatu dio argitzeko nola bideratu proiektu hori. Eskatzen die baloratzeko proiektuaren bideragarritasuna, horretarako eragin ekonomikoa aztertuz eta izan beharko lituzkeen ezaugarri kultural eta pedagogikoak argituz.

Material digitalak hezkuntza praktika moldatzeko beharrezana sortuko du, ikasteko eszenatoki berriak sortu ditu. Eskolak baliabide digitalaren erabilera bultzatu nahi duenez, ohiko testuliburuak gutxiago erabiliko dira, eta horrek eragina izango du eskolan daukaten Hezkuntza proiektuan zein irakasleen lan egiteko moduetan.

Ildo horri jarraitzeak eskatzen du, enkarguak ohiko testuliburuaren material alternatiboa proposatzea eta sortzea, bizi garen ezagutzaren gizartean euskarri digitalak gero eta erabiliagoak direlako eta ikasteko modu berria bultzatzen dutelako.

Sortuko den produktuari begira, generoaren oreka zaintzea eskatuko da, derrigorrezko irakaskuntzan ezin baita erabili inolako ikasmaterialik sexu bereizketarik egiten duenik.

Talde guztietan proiektu bera planteatuko da. Hala ere, talde desberdinek proiektuaren erantzun dibergenteak eman ditzaten, funtzekoa da kontuan hartzea burutuko den proiektuan eragina duten ondorengo osagaiak:

- Ikastetxeak daukan Proiektu didaktikoaren izaera
- Baliabide berria erabiliko den ikasmaita eta irakasgaia
- Ikastetxean alde aurretik Eskola 2.0 edo antzekoetan eginiko ibilbidea
- Software askearen eta sarearen erabilera.

1.3. Gaizerrenda

Proiektua, nagusiki, irakasgaiaren erditik aurrera burutuko da. Irakasgaia lau bloketan eta hamabi gaitan dago ordenatuta. Ikasgai osoan azalpen magistralak eta metodologia aktiboak tartekatuko dira. Irakasgaiaren landuko diren gaietatik 6 gai inplikatu dira proiektuan (**1, 3, 8, 10, 11**, eta **12a**), eta Proiektuarekin lotzen diren gaiak 7 astetan lantzekoak izango dira. Horretarako saio magistralak zein praktikoak erabiliko dira, denak presentzialak. Ikasleak eskoletara jo beharko dute informazio bila; beraz, ordu ez presentzialak ere beharko dira. Gainontzeko ikasgaiak (2, 4, 5, 6, 7, eta 9) azalpen magistralen bidez zein bestelako metodologia aktiboen bidez landuko dira.

I. Blokea	Ikasmaterialak curriculum proiektuetan	1. 3.	1. Programaren eta hezkuntza-proiektuen azterketa ikasmaterialekin duten koherentziaren arabera. 2. Eskola baliabidea eta ikasmateriala edukiak gauzatzeko tresna gisa ulertuta. 3. Eskola baliabidearen eta ikasmaterialaren kalitate-irizpideak: oinarri epistemologiko, sozial eta psikologikoak lortu nahi diren helburu, eduki, metodologia, sozializazio eta eskola antolakuntzarako.
II. Blokea	Ikasmaterialen egokitasuna		4. Ikasmaterialaren ebaluazioa. 5. Ikasmaterialak irakaslearen funtzio eta pentsaeraren adierazpen gisa. 6. Baliabidea eta ikasmateriala irakasle eta ikasle bitartekari gisa.
III. Blokea	Baliabideen eta ikasmaterialen integrazioarako oinarrizko baldintzak	8.	7. Eskola ezagutzaren hautaketa eta baliabideen integrazioa. 8. Baliabideen eta ikasmaterialaren integrazio egoki baterako oinarrizko baldintzak. 9. Baliabide didaktikoen aukeraketan eta erabileran eskolak gauzatzen dituen ezagutza eta kultura.
IV. Blokea	Digitalizazioa eta e-learninga	10. 11. 12.	10. Hezkuntza-praktika eta formakuntzarako eszenatoki berriak digitalizazioaren garaian. 11. Euskarri digitala kode desberdinen jo muga: irudi, testu, soinu zein multimedien uztarketa sarearen bidez. 12. Eszenatoki digital gorakariak: sare sozialak.

1.4. Aurrezagutzak

Irakasgaia Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduen 4. mailako Minorrekoa da (bost irakasgaiz osatua). Ikasleek Proiektuarekin erlazionaturik dauden gai batzuk badakizkitez alde aurretik:

- Minorreko gainontzeko lau irakasgaietan (orain arte landu bada ere), zeharka behintzat, zenbait gauza ikusi eta ikasi dituzte curriculumaz eta ikastetxeetan lantzen diren ezagutza-arloaz.
- Gure irakasgaien ere, zerbait landu dute berrikuntza pedagogikoaz eta ikasmaterialaren garrantziaz. Horrez gain, aurreko ikasturteetan ikasi dute zer den hezkuntza proiektua, zer diren IKTak, nola antolatu sekuentzia didaktikoa, zer den baliabide didaktikoa eta baliabideak aukeratzeko irizpideak.
- Hauetatik guztietatik, gainera, aipatu behar da ohituta daudela ekipoetan lan egiten eta ezagutzen dutela proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.

1.5. Irakats Zama

Irakasgaiak 6 kreditu ditu. Ikasleak, beraz, 60 ordu presentzial ditu eta 90 ez presentzial.

Irakasgaia lehen lauhilabetean ematen da, eta saio presentzialak asteko egun berean izaten dira (1,5 + 2 ordu = 3,5 ordu). Horrez gain, ikasgaiak 2,5 orduko bi mintegi ditu (5. astean eta 9. astean).

Irakasgaia irakasle bik emango dute, aldi berean. Horregatik, Proiektuari irakasgaiaren %50a eskaini zaio, hots, 30 ordu presentzial izango dira, eta 45 ez presentzial. Beste modu batera esanda, 15 astetik 7 proiektuari eskainiko zaizkio.

PROIEKTUAREN ORDUAK	Ordu presentzialak (Op).	Ordu ezpresentzialak (Oezp).
Saio magistralak	7 aste x 0,5 = 3,5 ordu 7 aste x 1,5 = 10,5 ordu	
Saio praktikoak	7 aste x 1,5 ordu = 10,5 ordu	
Mintegia	2 mintegi x 2,5 ordu = 5 ordu	
Proiektuaren balantzea egiteko	0,5 ordu	
Guztira	30 ordu	45 ordu

1.6. Taldeen kopurua eta taldeak egiteko irizpideak

Proiektua burutzeko garaian talde osoaren ikasle kopurua hartuko da kontuan. Taldea 40-50 ikasle ingurukoa izango dela aurreikusten da. Horregatik, gehien jota, taldeak 3-4 ikaslez osatuko dira. Taldeak osatuko dira irakasgaiarekin hastez batera, eta proiektua burutzeko taldea hasieratik eratzen den bera izango da.

Lauhilabetan zehar irakasgai honetan Haur Hezkuntzako ikasleak eta Lehen Hezkuntzakoak batera daude, baina Proiektuaren eginkizuna aurrera eramateko titulazio bereko ikasleez osatuko dira taldeak, eta zoriz.

Proiektua aurkezten zaien lehen momentutik azalduko zaie -aurrera egiteko ekipoan burutuko dituzten ekintzetan- ikaskuntza dinamiko eta kooperatiboaren bost ezagurri bete ditzaten saiatuko garela. Ekipo bakoitzari, proiektua burututzerakoan honako hau eskatuko zaio, beti: 1) Interdependentzia baikorra, bakoitzak taldeari ematen diona ekipoaren arrakastari bideratua egotea; 2) Taldekide bakoitzari eskatzen zaiona orekatua izatea eta ezinbeskoa ekipoaren zeregina betetzeko (edo, bestela, ezin burutuko da); 3) Interakzioa kideen artean bermatzea, behintzat, ikasgelan lan egiten duten bitartean; 4) Abilezia indibidualak eta ekipo lana sustatzeko zeregin dibergenteak eskaintzea, bai ikasgelarako zein kanpoko ekintzetarako; 5) Ekipoan gogoeta egiten dela bermatzea. Horregatik, bai irakasleak emanak planteatzen zaizkien ekintzetan zein euren kabuz modu autonomoan burutzen dituzten horietan, bost ezaugarri horiek ekipoak nola betetzen dituen kontuan hartuko da. Hau da, ekipoak aktetan agertuko da idatziz ekipoak bakoitzaren zeregina bost ezaugarri horien arabera lan egiten dutela ziurtatzeko. Esan dugunez, batetik, ohitura daukate ikaskuntza dinamikoan eta

kooperatiboan lan egiten Graduko 1. mailatik, eta bestetik, eta laster batean, euren irakasle ogibideetan, euren ikasleentzako horrelako eszenatoki eta zereginak diseinatu beharko dituzte.

Taldeak osatzerakoan ez da inolako baldintzarik jarriko Ikasleek lan-estilo desberdinak eta osagarriak dituztela ziurtatzeko.

2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIO SISTEMA

Ikasleari eskola curriculumak garatzeko estrategia, baliabide eta metodologia berritzaileak eskaintzen zaizkio maila teorikoan. Horregatik, ikasleak irakurketa teorikoak bere kabuz burutu ondoren gogoeta egin beharko du haien gainean. Arikeketan atalean ikaslearen esku jarri dira irakurketa horiei buruzko galderak, eta autoebaluazioa ere bai. Bestalde, eskola berritzailean funtsezkoa da ikasmaterial digitalak sortzea. Beraz, eskatzen dugu materiala sortzea eta ikasleek sortuko dutena sarean jartzea, horixe baita atal praktikokoan bideratuko dugun prozedura.

Metodologia honen bidez ikaslearen esku uzten ditugu zenbait tresna teoriko-praktiko egungo eskoletako hezkuntzaz gogoeta egin dezan. Horrez gain, gure ikasleei irakasgai hau era digitalean aurkeztea egokitzat jotzen dugu, zeren eurak sozializatzen ari baitira informazio edo ezagutzaren gizartean zeinetan abiadura ikaragarri nagusitzen ari diren sare sozialak.

Irakasgaia lau bloketan edo irakasgai nagusitan antolatuta dago; batetik, Irakasgaiaren autoikaskuntza bultzatzen delako, eta bestetik, ekipoetan lan egitea beharrezko ikusten dugulako -euren etorkizun profesionalari begira- irakasleok gai bakoitzari denbora berdina ez ematea erabaki dugu. Arrazoi berberetatik, trataera metodologikoa eta didaktikoa desberdina izango da. Batzuetan bakarkako lana, besteetan binaka, besteetan ekipoetakoa... Edozelan ere, bai ikaslea bai ikasle-taldea denboraren antolaketaren jabe izango da dituen habileziak eta aurrezagutzak kontuan harturik. Hala ere, irakasgaia bi irakasleek aldiberean ematen dutenez, saio batzuetako antolaketa eta kronograma irakasleen esku geratuko da.

Ebaluazioa jarraia izango da lehen egunetik hasita azken egunera arte. Ebaluazio horretan ikaslearen protagonismoari tokia emango zaio, eta horregatik, autoebaluazioak, koebaluazioak eta heteroebaluazioak toki propioa izango dute lauhilabetean zehar.

2.1. Jarduera motak

Ikasgaiarekin hasten garen lehen astetik abiatuta, Proiektuaren inguruan mini saio teorikoak eskainiko zaizkie ikasleei. Saio teoriko horiek, batzuetan etxean burututako irakurketan oinarrituko dira, eta beste batzuetan, klasean bertan garatukoak landuko da ikaskide guztien artean. Zeregin horietariko batzuk kalifikatu egingo dira. Kalifikazio erak oso dibergenteak izango dira, ikasleek ohitu behar baitute maisu-maistra ogibidean ebaluazioa eta kalifikazioa

ondo bereizten, eta aldi berean, horiek ondo egiteak dakartzan zailtasuna eta ondorioa neurtzen.

2.2. Ematekoen zerrenda

Ikasleek astero egiten dituzten lan batzuk (ez denak) kalifikatzeko erabiliko dira. Asteko saioetan buruturiko lanen arabera, saio presentzialetan eta ez presentzialetan eginiko lanaren gainean jasoko dira datuak. Datuak jasotzeaz batera edo hurrengo saioan beranduen lortutako emaitzak azalduko zaizkie ikasleei, denon artean emaitzak komentatuz. Beti azalduko zaie zergatik ebaluatu edo kalifikatu zaien era jakin batean edo bestean, eta horrek dituen ondorioez euren maisu-maistra lanbideari begira.

Etxean irakurtzeko eta lantzeko agintzen diren irakugaietan edo bideoetan sistematikoki hiru zeregin eskatuko zaizkie: 1) glosategia osatzea; 2) laburpena idaztea; eta 3) gogoeta pertsonala egitea irakurritakoaz, beti ere, irakasgaiaren kontestutik ikusita. Ekintza hau indibiduala da, ostean klasean taldean landuko dena.

Gainontzeko kasuetan, zereginaren izaeraren arabera, ekintza burutu baino lehen emango zaie jarraibidea edo protokoloa (ez, aldez aurretik), eta horren arabera ikasleak, banaka, binaka, taldeka edo... betetzen denaren arabera emango da kalifikazioa. Aldez aurretik, edo bestela ekintza burutu ondoren azalduko zaie zergatik edo zertarako burutu den ekintza hori. Azalduko zaie, era berean, zergatik aukeratu den era hori beste askoren artean, zeren maisu-maistra izango direlakoan, Proiektuak daraman metodologiaz gogoeta egitea beharrezko ikusten baitugu.

Horrez gain, ikasle hauek laster batean irakasle ofizioan arituko direla kontuan harturik - irakasgairan erdian, edo ikasleek irakasgaia nola doan dakitenean- ikasleei proposatuko zaie egin dutena eta falta dena kontuan harturik, adostu dezatela irakasgaia ebaluatzeko sistema bat. Ebaluazio-sisteman, kontuan hartu behar dute, proiektuak kalifikazioaren erdia balio duela. Bestalde, ebaluazio-sistema ikasgelan adostua izango da. Proiektuaren nota %50 izango da, eta gainontzeko aldakorra izango da, eta ikasleek arrazoitua eta adostua, ondorengo eskemaren arabera:

Proiektua: Ikasmateriala sortzekoa eta mintegietan egiten den lanaren gainekoa	5 puntu (a)
Ikasgelan egiten diren gainontzekoak, espreski kalifikazioa jasotzen dutenak	2 puntu (b)
Etxean egiten diren irakurgaien edo bideoen gaineko ekarpenak (glosategia, laburpena, gogoeta)	2 puntu (c)
Saioaren hausnasketak	1 puntu (d)

2.3. Proiektuaren Ebaluazioa

Proiektua irakasgaiaren %50a izango denez, irakasgaiaren kalifikazioaren erdia proiektuaren bitartez burutzen diren ekintzen bidez lor dezake ikasleak.

Ekipo bakoitzaren PROIEKTUA ikasgelan beste guztien aurrean aurkeztuko da, eta gainontzeko taldeek ebaluatuko dituzte, aldez aurretik eurek egin eta adostutako ebaluazio-fitxa erabiliz.

2.4. Ikasketa kooperatiboaren osagaiak

Ikasgai honetan, bereziki, taldea eta ekipoaren arteko desberdintasuna lantzen da. Horregatik garrantzizkoa da ikaste kooperatiboa zer den ezagutzea ere. Ekipo bakoitzari, beraz, honako hau eskatuko zaio:

- 1) Interdependentzia baikorra, bakoitzak taldeari ematen diona ekipoaren arrakastari bideratua egotea.
- 2) Taldekide bakoitzari eskatzen zaiona orekatua izatea eta ezinbeskoa ekipoaren zeregina betetzeko (edo, bestela, ezin burutuko da).
- 3) Kideen arteko interakzioa bermatzea, ikasgelan lan egiten duten bitartean.
- 4) Abilezia indibidualak eta ekipo lana sustatzeko zeregin dibergenteak eskaintzea.
- 5) Ekipoan gogoeta egiten dela bermatzea.

Horregatik, bai emanak ematen zaizkien ekintzetan zein euren kabuz modu autonoman burutzen dituzten horietan bost ezaugarri horiek ekipoak nola betezen dituen kontuan hartuko da. Hau da, ekipoko aktetan agertuko da idatziz ekipokide bakoitzaren zeregina bost ezaugarri horien arabera lan egiten dutela ziurtatzeko. Esan dugunez, ohitura daukate ikaskuntza dinamikoan eta kooperatiboan lan egiten Graduko 1. mailatik, eta bestetik, eta laster batean, euren irakasle ogibideetan, euren ikasleentzako horrelako eszenatoki eta zereginak diseinatu beharko dituzte.

2.5. Errekurtsoak

Ikasgaiaren behar den gehiena Moodlen aurkituko dute. Hor izango da ordenatuta saioz saio erabiliko duguna. Errekurtsoak irakasleek igoko badituzte ere, ikasleek ekipoka ordenatuta (emateko indibiduala izan arren), saio bakoitzean igoko dituzte ematekoak Moodler.

3. IKASLEAREN ASTEROKO LAN PLANGINTZA

Irakasgaia emateko erabiltzen diren 15 aste horietan honela banatuko dira Proiektuari eskainitako orduak eta ikasgaiaren gainontzekoak:

	Saio magistrala		Saio praktikoa		Mintegia	Proiektuaren balantzea	Guztira			
	Ordu presentzialak (Op)						Op		Oezp	
Astea	Proiektuari	Proiektua ez denari	Proiektuari	Proiektua ez denari	Proiektuari	Proiektuari	Proiektuari	Proiektua ez denari	Proiektuari	Proiektua ez denari
1		1,5		2				3,5		3
2	0,5	1		2			0,5	3		6
3	0,5	1		2			0,5	3		6
4	0,5	1		2			0,5	0,5		6
5	0,5	1		2	2,5		3	2,5		6
6	0,5	1		2			0,5	3,5		6
7	0,5	1		2			0,5	3,5		6
8	0,5	1		2			0,5	3,5		6
9	1,5	0,5	1,5		2,5		5,5	0,5	6	
10	1,5	0,5	1,5				3	0,5	6	
11	1,5	0,5	1,5				3	0,5	6	
12	1,5	0,5	1,5				3	0,5	6	
13	1,5	0,5	1,5				3	0,5	6	
14	1,5	0,5	1,5				3	0,5	9	
15	1,5	0,5	1,5			0,5	3,5	0,5	6	
Total	14	12	10,5	18	5	0,5	30	30	45	45